

Zeruko ARGIA

IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 28666 - PREZIOA 3 PEZETA

Berriro Napparroa'ri eztenka

Udaberrian ari zan Napparroaren kontrako eraso, zenbait periodikotan. Eraso arek Udara guzian irau zigon. Etsaiak alde askotatik jo zuten beren pozoi txarrez aidea betetzen. Telebisiotik izan zan aurrena, ABC egunkarian eman zuten urrago akuludea, ta aien aizetan zabaldu zan Napparro'ko Foruen aurkako aidea.

Oraintxe illabete inguru, ixildu ziran esan guziak eta nolabaiteko pakea genduen, guzia bukatu zalakoan. Ba-zirudian alde batekoak eta beste-koak alako tratu zintzo bat izenpetu zutela, Napparro'ko Diputzioko ta Gobernuo ordezkariak bitartean iñungo bultzarik gabe, borondate onez ber-ritu zezaten beren artean Itunben berria.

Batzorde ori lanean ari zan bitartean, Foruak aitatzerik ere etzan nai. Erabakia garbi ta iñungo eragirik gabe, zuzentasun bidez artu bear zan. Alde batekoak eta beste-koak ikamika asten ba-ziran, erabaklaren eta al-karren arteko artu-emanen garbitasuna ta patxara gal zitezkean.

Ala gounden gure ustetan, eta orra nola, gutxien uste genduen or-duan, berriro arrotu duten Napparroaren etsaiak len bezin garrata eta go-rotokeriz itxu, Napparro'ko Foruen kontrako beste erasi bidegabezko bat.

Eta oraingoan, gure Foruen etsaiak «Pueblo» egunkaritik, sindikatuen egunerokotik, jaurtik dute beren pozoi. Idazlanaren izenburua: «Un nue-vo régimen fiscal para Navarra» izan da, ta Idazlea Oscar Núñez Mayo degu oraingoan.

Longo ta oraingo esanak ari batean dijoaz, eta ikusten deguna, au da: Napparro'ko Foruen aurka ari diranak, gal ontan izenik ez duten jendea dala. Idazle oiek ez ekonomi gaietan, ez Foru-saillean ez dute ezerean ja-kiterik. Orregatik guk burua estutu ta gero, idazle oien atzetik, besteren bat dabilela, artu degu susmoa.

Arritzekoa da ere «Pueblo» egunkaria ontan sartzea; Sindikatosa guz-tiok pagatzen bai-degu. Ta idazleak jakintsu ez diranean, onelako lanek periodikoko Zuzendariaren gain dijaz. Eta Sindikatosa, Peman'ek zionez, Falanjaren aginpean ba-dago, oraindik urrutirago dijos, eraso ofen iturris.

Napparro'ko egunkari ta papalak, ikusi zegoen bezela, guziak batera erantzun dute ta etsai zital oien asmos aglrian jarri dute. Ori, bai. Orain-go berriketalarori orren esanak, ongi erantzunak zeuden lenago ere. Ez degu alperrik astirik galdu nai, beraz, len erantzunak berritzen. Au da, gutxi gora bera, napparro'ko periodikua diona.

Guk ZERUKO ARGIA'rik lagun-eskua luzatu nai diegu napparrei Napa-rrak euskaldun dira odolez eta izkuntze. Orregatik, siei min emateak gu ere biziro mintzen gaitu.

Guziok dei egiten diegu, ba, emendik, bakoitzak ai duen neurrian bere alegia jarri dezan Napparro'ko Foruen alde. Berritzeko dagoen Foru-straia, izan dedida, Napparro'ren eskubideak zapalitzeko.

Euskaldun guziok, Napparro'ren alde gaude. Jakin dezatela.

LEGATE

Balearesdarrak ere beren izkuntza nai dute eskoletan jarri

Palma de Mallorca'n, irailaren 27'an bildu ziran, Balearesetako Di-putzioaren etxean, probintziako er-riburu ta kultura bazkunen zuzen-dariak, beren izkuntzaren alderako eskariak Madrilgo Gobernuari adi-zeru emateko. Idazki luze bat bial-du dute Gobernuari, Ministerio de Educación y Ciencia dalakoaren ize-nera. Idazki orretan adierazten du-te.

Balearesko ugarte aietan katalan izkuntza berezi bat mintzatzen du-tela XIII-garren mendean kristau errekonkistan sartu zana. Literatura aberatsa omen du (Erdi Aroko Ra-mon Llull filosofoa zalarik sortzaille) eta gaurkotasunez ornitua Mi-guel Costa y Llobera, Juan Alcover, Miguel de los Santos Olivier, Lo-renzó Ribet eta beste zenbait kul-turazale aundik landua.

Beren izkuntza jakitzean, fran-kses eta italiarrekin ain senidetasun urbila dutelarik, bertako semeeri as-ko laguntzen omen die gainerako izkuntza ikasteko, gaztelera jakitzea ukatzeke. Eta, diote, askoz ere obe litzakeala beren izkuntzaren ikaske-ta agozkoa bakarrik ez izatea, bai-zik eskoletan irakatsia lenengo eta bigarrengo mailletan gutxienik, ber-tako kultura eta izakerari begirapea obee izateko, orain arte ez baidute ortarako eskubide ofizialik.

Eskoletan gurasoen izkuntza ez irakastea pedagogiaren kontrako de-rizikiela diote, zeren, UNESCO'ko teknikoak agiriz azaldu zutenez, guraso izkuntza beti agertu bear lit-zake aurren irakasketako oinarri-izan; eta kulturaren aurkakoa da be-ren izkuntzan analfabeto izango di-ran eukazioz baliatzea, beren lite-raturan izan dituzten lanak ezagu-tzera ez baidu laguntzen, bakoitzak norperaren erriko kultura lenengo ikasi bearrezkoa izanik.

Espainiako zenbait Unibersidade-etoka Filosofia y Letras sailletan ontzat artua izanik katalan izkun-tza, bere egintza auleriz gutxitua arkituko da aurrez ikasleak ez ba-dakite lenengo mailletako formazio-rik, lenengo ta bigarrengo ikastaro mailletan ofizialki jarri ezik. Goiko ikastaroetarako oinarriak bear dira, oinarri oiek gabe, injinieru ikastera aritmetikaren lau erregla fundamen-tuzkoak bakarrik jakinda joatea be-zela omen da.

Gaiñera, beren idazki orretan dio-te, izanpetzen dutenak oso pozik ikusi omen dute Estadu Batuen (EE. UU.) agindua California'ko eskoletan obligazioz espaholezko irakus-kerak jartzea aurren eskoletan. Oraintxu eman omen dute Ipar-ame-riketako agintariak mandatu ori, ta ori omen da buruz eta zintzo joka-tzea. Ta, beren aldetik ere, peda-gojiari, ta kulturari begiratuaz, jo-kaera berdina nai omen dute balea-resko ikastoletan katalana izkuntz errejionala ofizialki jarriaz.

Adierazten duten guzia, beren probintziako millakak personen sen-tiera ta naia omen da. Ta, errazoi orrek bultzaturik, eskatzen omen die Ministru jaunari katalan izkun-tza eskola, instituto ta gaiñerako ko-lejioetan, balearestarrentzat obliga-ziozko jartzea.

Txalogarria benetan balearestar-ren jokera au. Ez da gutxi eskatzen dutena. Artuko genduke... Emotera ere beartzen gaituzte ta...

Orain erantzun zai daude Balea-res'ko Diputazioan.

Ikusten denez, euskaldunok eus-kerari liltzen utziko bagenioke ere, Espainiako izkuntza prolema ez da emen bukatzen. Munduko erriak, berez dijoaz geruago ta ar-eman es-

tuagoetara. Gaur, Europa'ko edozein errian. Inglaterran, Alemanian edo Errusian izan ezik, goimailako ja-kintzetan sakonki estudiantuko ba-da, tekniku ta zientifikuak bearturik daude bilinguistak izatera, beartu-rik iru nazio oietako izkuntza bat ikastera, ta bigarren mailako fran-tsesa, suekoa, espainiola edo italia-rra. Irugarren mailako izkuntzen artean ditugu Europako erririk gei-elnak.

Beraz, gauzak ortara ikusita, bear-tuak gaude bi edo iru izkuntza ja-kitzera. Zer obe guziok alkarri bi-zitzen laguntzea baño? Guziok al-kar errespetatzea iñor menderatze-ra beartu gabe, uste degu, bidezko bakarra dala.

JUAN SAN MARTIN



Euskalerrira gero ta beiso ari da szitzen. Lentegiak, etxegintzak, eskolak eta beste serbitze guztiak. Egan leike elizgintzak atzeratuak dau-dela. Alde batetik bea'hadia eliz-gizonen erruz da. Baño laikoak ere ez al dute itzik etxe-berriak eraikitzen ari diranean, aliz berrentzako bere tekua gordetzeko? Euskaldun guztiak ez dira beartuak egongo, baiña bai kristau ta sinistunak. Eliz gizonen parean artu bear dute be-re gain responsabilitadeta edo erantzunakizuna. Argazitan ikusten degun eliz-stari au Errenderin egin danarena da: gaurko eran, xinplos argia, egokia ta oso funtzionala. Eliz au, orain zortzi urte «Pake-toki»-an residentzia jarri zuten Kaputxiñoena da. Uste degu, orain arte izan dan bizitza-etxea irakaskintzarako jarriko dala. Euskera kontuan sulkiko al dute bear dan ake? Eliz berri onetaz jakin nai duanak, ikusi bedi ber-deratzigarren orrisaldea.